

MUSIKAREN INGURUKO HAUSNARKETA, ASTIGARRAGA 2023 ALDIZKARIAN

Ale berri honekin, dagoeneko 1.000 artikulatu dira, eta guztiak herritarren eskura daude.

Musikaren bilakaera historikoa eta gaur egungo egoera sakon aztertu dituzte musikarekin zerikusia duten talde, erakunde eta pertsonak. Hori guztia, beraien ekarpenen eta joan den maiatzaren 20an Murgia Jauregian egindako hausnarketa-saioaren bidez. Musika balio kulturaltzat hartuz, aldizkariaren gai nagusi gisa proposatu dugu, bai idatziz, bai ikus-entzunezkoetan.

Ale berri honekin, 1.006 artikulutara iritsi gara. Balio historiko eta soziokultural handiko dokumentu horiek 42 aldizkaritan daude eskuragarri, bai formatu inprimatuan, bai digitalean, gure web orrian: astigar.eus.

Aurten, hauek dira historiaren inguruko gaiak: Astigarragako tranbia, emakume serorak eta haien praktikak eta “Orri zuriak betetzen” dokumentala. Gai eta pertsona ezagunen atalean, herritar berrien gogoetak eta gazteak eta haien gogoeta eta lehentasunak nabarmentzen dira, baita Lorena Lopez gizarte-langilearekin, Olatz Alkorta piraguistarekin eta Luis Telleria pinturaren maisuarekin egindako elkarrizketak ere.

Kulturarekin eta kultur eragileekin zerikusia duten gaiak ere aipagarriak dira. Hala, aurten Martin Ormazabalek gure kulturaren esparruan egiten zuen lan handia jaso da, eta bereziki euskal dantzekin zuen lotura. Horrekin batera, literaturak beti du lekua gure aldizkarian, eta Urtzi Leonet, Irati Oskoz eta Koldo Mitxelena literatur lehiaketan saritutako gazteen ekarpenak nabarmentzen ditugu.

Aranzadiko kide Ion Garinek sakon deskribatzen ditu espezie arrotz inbaditzaileak. Azkenik, herriko elkarte eta taldeen proiektu eta ekimenetarako lekua ere badu aldizkariak, besteak beste, Emakumeon etxea, Txirriskla, Urumeaberri GKE, Gure Izarra eta Astigarte.

Proiektu soziokultural hau garatzeko, ezinbestekoak dira laguntzaile askoren ekarpen altruista, herritarren ekarpena eta aldizkariko lantaldearen ahalegina. Hori dela eta, lankidetzaren hitzarmena dugu Udalarekin. Hitzarmen horri eta erakustokien bidez jasotzen ditugun herritarren ekarpenei esker euts diezaiokegu aldizkariaren izaera herrikoari.

Aldizkaria datorren ostiralean, uztailak 7, zabalduko da, arratsaldean. Aldizkaria jaso eta nahi den ekarpen ekonomikoa egin ahal izango da Valella eta Goxua okindegietan, Erriberako Ogiberri okindegian, Ainhoa janari-dendan eta udal-liburutegian dauden erakustokietan.

MILA ESKER ZUEN AITORTZA ETA LAGUNTZAGATIK!

Astigarragan, 2023ko uztailaren 1ean

REFLEXIÓN SOBRE LA MÚSICA, EN LA REVISTA ASTIGARRAGA 2023

Con este nuevo ejemplar se ha llegado a la cifra de 1.000 artículos divulgados, a disposición de la ciudadanía

La evolución histórica y la situación actual de la música en el pueblo, han sido abordadas en profundidad por los grupos, organismos y personas vinculadas con la música. Todo ello, a través de sus aportaciones y el encuentro de reflexión realizado el pasado 20 de mayo en el Palacio de Murguía. Reconociendo la música como valor cultural, la divulgamos como tema central de la revista, tanto de forma escrita como audiovisual.

Con este nuevo ejemplar, llegamos a un total de 1.006 artículos publicados. Estos documentos, de gran valor histórico y sociocultural, se encuentran a disposición de los y las astigarras en las 42 revistas publicadas, tanto en formato impreso y digital, a través de nuestra página web: astigar.eus.

Este año el ámbito de la historia destacan, el tranvía en Astigarraga, las mujeres seroras y sus prácticas y el documental “Orri zuriak betetzen”. En el apartado de temas y personas populares resaltan las reflexiones de los nuevos vecinos, los jóvenes y sus reflexiones y prioridades y las entrevistas con Lorena Lopez, trabajadora social, la piragüista Olatz Alkorta y Luis Tellería, un maestro de la pintura.

También hemos querido destacar os temas relacionados con la cultura y sus grupos. Así pues, este año se recoge la gran labor que desempeñaba Martin Ormazabal en el ámbito de nuestra cultura y más expresamente su vinculación con las euskal dantzak. Unido a ello, la literatura siempre tiene un hueco en nuestra revista y resaltamos las aportaciones de Urtzi Leonet, Irati Oskoz y las personas jóvenes premiadas en el certamen literario Koldo Mitxelena.

Las especies de animales y plantas invasoras en nuestro entorno cercano son descritas exhaustivamente por Ion Garin, miembro de Aranzadi. Finalmente, la revista reserva también su espacio a los proyectos e iniciativas de las asociaciones y grupos del pueblo, entre ellas, Emakumeon etxea, Txirriskla, Urumeaberi GKE, Gure Izarra y Astigarte.

Este proyecto sociocultural se desarrolla con la aportación altruista de muchas personas colaboradoras, del pueblo y el esfuerzo del equipo de trabajo de la revista. Es por ello, que disponemos de un convenio de colaboración con el Ayuntamiento, que avala nuestra implicación y que junto con las aportaciones económicas de la ciudadanía a través de los expositores hace que nuestra entrega tenga un carácter popular.

La revista se divulgará el próximo viernes, día 7 de julio, por la tarde, y se podrá recoger y hacer la aportación económica voluntaria que se estime oportuna en los expositores disponibles en las panaderías Goxua, Valella y OgiBeri (Erribera), en la tienda de comestibles Ainhoa y la biblioteca municipal.

MILA ESKER ZUEN AITORTZA ETA LAGUNTZAGATIK!

Astigarragan, 2023ko uztailaren 1ean